

20
25

URTEKO MEMORIA —



Sarrera

Unescoren balioak, zientzia, kultura eta hezkuntza gure Geoparkean hedatzea izan da helburua aurtenera. Dibulgazioaren bitartez bai herritarrei baita bisitariei ere gure ondarearen berri eman eta honen kontserbazioan sakontzen jardun dugu.

Next Generation funtsei esker egingo diren interpretaziorako azpiegituren kontzeptualizazioa eta haien garapena izan dira aurtengo zereginik aipagarrienetarikoak. Plan honek beste abiapuntu batean kokatzen gaitu, lurraldea orekatuagoa lortzen.

Nazioarteko harremanak gero eta garrantzi handiagoa dute gure

ordezkaritza indartzen jarraitzen dugun heinean, IUGS, GGN, EGN eta Estatuko Geoparkeen Sarean aktiboki lan egin dugu, Estatuko Unesco Geoparkeen Elkartearen sortzera arte. Beste Geoparke eta hautagaitza batzuetatik aholkularitza, hitzaldiak edo eta formakuntza eskaerak handitzen dihoaz erreferetziako geoparke bihurtu garen neurrian.

Komunikazioa eta marketina dira Geoparkeko irudia eta mezuak, lurralde guztira eta arlo ezberdinetara zabaltzen laguntzen diguten tresnak. 2025ean Geoparkea eta hiru udaletako turismo zerbitzuen lotura indartu da irudi amankomun baten bitartez.



01

Zientzia, Kultura eta Hezkuntza

ZKH1

IKERKETA ETA
DIBULGAZIOA
GEOLOGIA ETA
LURRAREN ZIENTZIAK,
ORO HAR

1.1.1.

Geoparkearen Batzorde Zientifikoaren bilera

Europako Geoparkeen Astearen baitan, Geoparkeko Batzorde Zientifikoaren bilera egin da. Bilera honetan geologia, biologia eta arkeologiaren esparru desberdinetan lan egiten duten **25 adituk parte hartu** zuten Geoparkearekiko konpromisoa berretsiz eta etorkizuneko erronka eta aukerak aztertuz. Bileraren ondorioz komunikazio digital dinamika bat ezarri da kideen arteko lankidetzaz bultzatzeko.



1.1.2. Ikerketa-programa

- International Association of Geomorphologist elkarteak aurkeztutako *Coastal Landforms of the Basque Coast UNESCO Global Geopark – From Inventory to Geomorphological Map* **proiektuaren 2. urtea** landu dugu.
- Geoparkean **ikerketa bultzatzeko 2026 diru laguntzen deialdia** prestatu eta argitaratu da.
- Deba – Zumaia Itsasertzeko Paisaia Natural Babestuan eta Geoparkeko eremuan bertako eta kanpoko unibertsitateek egiten duten **ikerketa lanaren jarraipena**.
- **Zaragozako ikerketa taldearekin** batera **K/Pg inguruan detaile handiko lagin ugari** hartu ditugu mikropaleontologia eta geokimika egiteko.
- **UNAMeko** (Mexiko) Alexander Iriondo geologoarekin eta EHUKo ikerlariekin batera **Gipuzkoako kostaldeko flyschean Aiako harriko zirkoia topatzeko proiektuan mendiko lana** egin dugu. Lehen laginak aztertuta flyschean zirkoia zaharrak daudela baieztatu.
- EHUKo ikertzaileen laguntzarekin Geoparkeko **bilduma zientifikoa eguneratu**. Nazioarteko 150 artikulua baino gehiago eskuratu ditugu.



1.1.3. Dibulgazioa

GEOPARKEAN

- Geoparkeko **mapa geologikoa berritu** dugu azken urteetan izendatutako GIG berriak sartuz eta maparen diseinua nabarmen hobetuz.
- Geoparkeko **irteera gidatuen edukiak**, diskurtsoa eta material grafikoa errepasatu eta eguneratu dira.
- Irene Irureta idazle eta ilustratzaile zumaiaarrak landu duen **‘Flysch’ pop up liburua**ren edukietan ekarpenak egin eta promozioan lan egin dugu.
- **Zumaia flysch fieldtrip** USAC ikasle atzerritarrei eskainitako irteera.
- **“XI Simposio nacional sobre taludes y laderas inestables”** batzarraren mendiko irteera antolatu dugu GFAko karretera zerbitzuarekin batera Zumaia eta Getaria arteko N-634 errepidearen neurri zuzentzaileak erakusteko.
- **EHUko ikasleak** (Geografia eta Geologia sailak) birritan izan ditugu Geoparkean, kudeaketa orokorra eta bereziki Algorri ibilbidearen azpiegitura erakutsi zaielarik.



- **Utrecht-eko Unibertsitateko geologia ikasleak** mendi lana egitera etorri direnean harrera egin zaie Geoparkeari buruzko azalpen orokorrak emateko.
- **Elhuyar** lantalde osoarentzako egun bateko txangoa antolatu da. Geoparkearen zientzia eta komunikazioaren inguruko hitzaldia eskaini zaie.
- **Basque Centre for Climate Change / BC3** lantalde osoarentzako egun bateko txangoa antolatu da. Geoparkearen zientzia eta komunikazioaren inguruko hitzaldia eskaini zaie.
- **Saturrarango haitzak** proiektu artistikoari aholkularitza eskaini zaio eta aurkezpenean flysch beltzaren inguruko sarrera bat egin zuen Geoparkeko Zuzendari zientifikoak.
- **Heidelberg Unibertsitateko ikasleei**
International recognition to the memory of the Earth. An invitation to Basque Coast UNESCO Global Geopark hitzaldia eskaini zaie. Hitzaldi honen bitartez, 2026 urtetik aurrera ikasle talde bat etorriko da Geoparkera lau egunez landa lana egitera.



GEOPARKETIK KANPO

Urte guztian zehar hainbat eta hainbat kongresu, webinar eta hitzaldietan hartu du parte Geoparkeko Zuzendari zientifikoak:

- Euskal erkidegoan zientzia saretzeko **Jakindari Topaketan** hartu dugu parte Geoparkearen izenean. Topaketa honetan zientzia dibulgazioan euskal eragile nagusiekin elkar lanerako lehen elkarrizketak izan genituen.
- Donostiako ACEX eta Tolosako Betikaste taldeei **HAB. Historiaurreko Bailara hitzaldia** eskaini zaie.
- Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen duen **VI Geologia para poetas, miopes y despistados** jardunaldian parte hartu genuen "Reconocimiento internacional de Patrimonio Geológico" eta "Geoparques, motores de desarrollo" hitzaldiekin. Geoparkea jardunaldi hauetako babesle da.
- Ondarroan antolatzen den **Zientziaren giltzak** jardunaldian parte hartu genuen "Flysch, Euskal Kostaldeko altxor geologiko harrigarria" hitzaldiarekin.
- Xeoparque Cabo Ortegalen (A Coruña), **Cida-interprete ikastaro** ofizialean bi saio eskaini ditugu.



ZKH2

ONDARE ARKEOLOGIKOAREN ETA HISTORAURREAREN IKERKETA ETA ZABALKUNDEA

- **Ermitia** eta **Praileaitz** kobazuloetan egin den ikerketan jarraipena egin da eta gune berrien diseinuan parte hartu dugu.

ZKH4

ONDARE UKIEZINAREN ZABALKUNDEA

- **Euskaraldia 2025** euskararen aldeko ekimenarekin bat egin zuen Geoparkeak.
- **UNESCOren Munduko Geoparkeen Nazioarteko XI. Batzarraren baitan**, Geoparkeko kudeatzaileak honako **hitzaldia** eman du Txilen: *Spanish Global Geopark Network: an alliance of 18 territories ("United voices", a global partnership to protect cultural and linguistic diversity).*
- Las Loras Geoparkeko **kultur eragileen bisita**



ZKH5

INGURUMEN HEZKUNTZA

1.5.1. Geoeskolak

Ikasturte honetan **300 bat ikaslek egin dute programa** eta Geoparkeko eskolaz gain, kanpoko Ikastola bat ere etorri da eskaintza didaktikoa ezagutzera.

Aurten, Geoeskolak programaren hausnarketa prozesu bat abiatu dugu eta esfortzu berezi bat egin da Geoparkeko eskolak biltzeko eta eztabaida sortzeko. Estatuko Geoparkeen jardunaldi irekietan hezkuntza gai nagusia izan dela eta, Geoparkeko lantalde zabala joan da Katalunia Zentraleko Geoparkera, Geoeskolak programa aurkeztera eta beste toki batzuetan egiten diren esperientziak ezagutzera.



1.5.2.

Nazioarteko Egunak eta publiko orokorrari zuzendutako dibulgazio eta sentsibilizazio eskaintza

BIOTOP ekimena Mutrikuko Artzainerrekan egin dugu Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzarekin, eta ibar-basoa izan du hizpide.

Nazioarteko Egunak:

- SEOk deitutako **Hegazti Migratzaileen Egunarekin** bat eginez, eta Aranzadi Zientzia Elkarteko adituen laguntzaz, eraztunketa zientifikoa ezagutzeko tailerra egin da.
- **Hezeguneen Munduko Eguna** ospatzeko Debanatura elkarteak antolatutako jardunaldia babestu dugu. Mutrikuko Casacampo eta Debako Artzabal inguruko paduretan egin zen.
- **Ozeanoen Eguna**rekin bat eginez, Debanaturak elkarteak Zero Zabor Geoparkean izeneko jardunaldia antolatu zuen, eta gure babesa izan zuten. Goizean zabor bilketa eta sailkapena egin zen, eta egun osoan zehar informazio puntua egon zen irekita hondartzako pasealekuan.



- **Geodibertsitatearen Munduko Eguna** ospatzeko *Geoparkea*, *Geodibertsitatea eta gu* irteera gidatua eskaini da Deba eta Mutriku arteko ibilbidean.
- **Mendien Nazioarteko Eguna** ospatzeko Alex Txikon alpinistaren Mendietxe Museoarekin batera *Glaziarrek eta mendiak: nola aldatu da alpinismoa klima aldaketarekin* saioa (solasaldia eta museora bisita gidatua) antolatu dugu.

1.5.3. Lankidetzak

Beste eragile batzuekin elkarlanean honako jarduerak antolatu dira:

- **Saguzar Gaia:** Naturzaindia Elkartearen eskutik saguzarrei gerturatzeko jardunaldi bana antolatu dugu, Deban eta Mutrikun.
- **Zumaia Flysch Trail** lasterketako antolatzaileekin eta **Kilian Jornet Foundation**ekin batera Running Minds ekimenean parte hartu genuen.



Geoturismoa

GE1

PRODUKTU ETA BALIABIDE GEOTURISTIKOAK

02

2.1.1. Bisita gidatuen programa

2025eko helburu estrategikoak:

- Udatik kanpo bisitariak erakartzea.
- Zumaian egiten den ordubeteko itsas irteeraz gain, beste herri eta baliabideak erakusten dituzten bisitak indartzea.
- Mutrikun sortu den 'Flyscha Haurrekin' bisitarekin, profil horretako bisitariak Mutrikura erakartzea.



BISITA KOPURUA

2024	2025	%
573	553	-3

PERTSONA KOPURUA

2024	2025	%
11.128	9.934	-11

Irteera gidatuetan 944 asebetetze-inkesta jaso dira 2025ean eta batez besteko balorazioa 10etik 8.9koa da. Ondoan baloratuta dauden alorrak: jasotako arreta (9.3 puntu), erreserba prozesua (9.3) eta gidarien azalpenak (9.0) izan dira. Aurreko urteko puntuazio altuak mantendu dira eta horrek esan nahi du bulegotik egiten den aurretiko eta ondorengo kudeaketa eta in situ ematen den arreta oso onak direla.

Baloratutako alorrak (1-10)	Balorazioa 2024	Balorazioa 2025
Iritzi orkorra	8.9	8.9
Erreserba prozesua	9.3	9.3
Gidariaren azalpenak	9.2	9
Prezioa	8	8.3
Medioen balorazioa	8.5	8.4
Jasotako arreta	9.3	9.3

2.1.2. Produktu turistikoen hobekuntza eta berrikuntzak

- ***Flyscha haurrekin*** bisita 2025ean **programa ofizialean** sartu dugu.

2.1.3. Baliabide turistikoak

- **Oinezko ibilbideak.**

Geoparkeko Bira produktu paketatua eskaini dugu, Erro koop.-ekin egindako akordioari esker.

Geoibilbideen sarea. 2025ean, baliabide honen PDFek (lau hizkuntzetan) 3.334 deskarga izan dituzte.

- **Interpretazio zentroak.**

Zumaiako Algorri Interpretazio Zentroa, 2025ean sei hilabetez soilik egon da irekita gaur egun duen egoitzan (7.616 bisitari); ordutik aurrera, Amaia Plazan kokatzen den informazio puntua artatu dute bertako langileek (7.327 bisitari). Beraz, % 3,8ko igoera izan du, batez ere, ekainean.

Mutrikuko Nautilus Ikasgune Geologikoak 1.985 bisitari jaso ditu, iazko zifra berdinetan mantenduz.

- **Turismo bulegoak.** %5,4ko igoera izan du bertan fisikoki arreta eman zaien pertsona kopuruak, 46.875 pertsonatik 49.538ra igoz.

GE2

SUSTAPENA ETA MERKATURATZEA

2.2.1. Promoziorako materiala

Atzerritarrentzako flyer-a birdiseinatu da eta atzerritarrentzat ditugun produktu eta baliabideak bateratu dira bertan, izan ere, lehen bisita gidatuak soilik aipatzen ziren bertan. Orain Geoibilbide sarearen eta Geoparkeko Biraren informazioa ere ageri da.

Honez gain, ferietara eramateko Geoparkeko Biraren zutikako totem txiki bat sortu da eta etapa bakoitzeko biribil formako mahai gaineko elementu batekin osatu da.



2.2.2. Bisita gidatuen merkaturatze eta salmenta


Azken urteetan online salmenta bultzatu da eta jadanik **salmenten %85a online** egiten da gure webgunearen bidez. Kolaboratzaile desberdinekin (Civitatis eta Donostia-San Sebastián Turismo) pilotu gisa lanean hasi gara beraien kanalen bidez salmenta eginez eta hauek ere salmenta kuota ona lortu dute.

2025ean Donostia-San Sebastián Turismoko bazkide egin gara. Eragile honek Donostiako informazioa emateaz gain, inguruko informazioa ematen du eta bisita gidatuen salmenta ere gauzatzen du.

Promozioari dagokionez, bisita gidatuen promozio berezia egin da, esaterako 'Flyscha haurrekin' bisita gidatua bultzatzeko **Flysch Beltzaren Hilabetea** izeneko kanpaina berezi bat egin da.

2.2.3. Azokak

- **Fitur 2025**, Euskadiko standean 'Geoparkeko Bira' ibilbidea aurkeztu da. Gainerako UNESCO geoparkeekin batera stand propio bat jarri da, bigarren urtez.
- **Basque Fest Bilbao**. Stand propioarekin parte hartu dugu.



2.2.3. Turismo agenteekin harremana

Turismo agente desberdinen artean ezagutzera ematea eta harremanak indartzea ezinbestekoa da helmuga turistiko batentzat. Kazetari espezializatuarekin kontaktuan egoten gara informazioa helarazteko eta Geoparkea bisitatzeko dutenean beraiekin elkartzen gara gure helmugaren nondik norakoak lehen eskutik aurkezteko eta erakusteko.

Alor desberdinetatik jasotako bisita bereziak:

- Gipuzkoako HUBetik Debabarrenera bisita tekniko (Geoparkearen aurkezpena Debako hotelean eta HAB eta Debako elizara bisita)
- Reserva Ecoturista de la España Verde agentzien fam-tripa
- Derioko Nekazaritza Eskola LHI (hitzaldia eta bisita)





Lurraldea eta Kontserbazioa

03

Plan Estrategikoan jasota dagoen bezala, 2023an hasi ginen Geoparkeko seinaleztapena indartzen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dugun hitzarmenaren baitan, eta 2025ean ere lan horretan sakondu dugu.

LK1

IBILBIDEAK ETA BIDEZIDORRAK DISEINATZEA

- **Sakonetako ibilbideak**
hobetzeko prozesuan parte hartu dugu. Azken urteetan areagotu diren higadura arazoak ekidin eta segurtasuna bermatzeko ekimena izan da, bisitaren kalitatea eta kontserbazioa uztartuz.
- **Geoparkeko Bira** ibilbidean izandako lur-jausiak eta hainbat zatitan egin diren lanak beharturik, ibilbidean ezinbesteko aldaketak egin behar izan dira eta alternatibak aztertu ondoren, webgunean zein mapetan egin beharreko aldaketak prestatu dira.





LK3

LURRALDEA INTERPRETATZEKO AZPIEGITURAK

- **San Telmoko panel berriak** sortu eta bere lekuan kokatu dira.
- **NEXT Generation EU Funtsak** laguntza-programa gauzatzeko hainbat urrats eman dira interpretaziorako azpiegituretan, 2026an gauzatuko diren proiektu hauek burutzeko helburuarekin Geoparkeak museografiaren edukiak, testuak, bideoak eta abar landu ditu:
 1. Zumaiako **Flyschenea Museoa** berriaren proiektuaren koordinazioa egin da eta edukien eta testu guztiak sortu dira.
 2. Zumaiako **Moilaberri** museo eta turismo bulego berriko edukiak gainbegiratu dira.
 3. **Debako Turismo bulegoaren** distribuzio berria eta edukiak landu dira.
 4. Mutrikuko Komentuan egingo den **Talaixa Geomuseoa**ren edukiak gainbegiratu eta zuzendu dira, bai museoko testuetan baita ikus-entzunezkoetan ere



LK5

NATURA-INGURUNEAREN ETA, ORO HAR, ONDAREAREN BABESA ETA KONTSERBAZIOA

- **Arno Kontserbazio Bereziko Eremuko Ormola urmaela leheneratzeko lanak** egin dira. Proposatutako esku-hartzeek hainbat helburu bete nahi izan dute. Batetik putzuaren biodibertsitatea aberastu nahi izan da, ugalketa eremu gisa baliatzen duten bizidunak eta urmaela bazka eta ura lortzeko baliatzen duten animaliei lagunduz. Bestalde, animaliak itotzeko arriskua murriztu edo ezabatu nahi da. Bukatzeko, putzua balioan jarri nahi izan da.

04

Bertako garapena eta iraunkortasuna

BS2

LEHEN SEKTOREA BULTZATZEA

Bertako elikagaiekin osatutako **GeoGourmet Gozoa** eta **GeoGourmet Gazia** otarren sustapenarekin eta salmentarekin jarraitu dugu. Geoparkeko ekoizleen produktuak sustatzea eta merkaturatzea da helburua.

BS3

GEOPARKEZALEAK

Turismo sektoreko entitate laguntzaileekin informazio eta jarraipen bilerak egin dira urtean zehar.

Gaur egun, **34 entitate laguntzaile** ditu Geoparkeak. 2025arte alojamendu, jarduera- enpresa eta bidaia-agentzia hartzaileek osatzen zuten sarea, aurtun jatetxe eta bisitak dituzten produktoreak gehitu ditugu. Zabalkunde honekin zazpi entitate berri batu dira (bost jatetxe eta bi ekoizle).

BS4

EUROPAKO GEOPARKEEN ASTEA

Europako Geoparkeen Astearen 16. edizioa antolatu dugu aurten, Euskal Kostaldeko Geoparkean. Maiatzaren 23an hasi eta ekainaren 1a bitartean eta bi asteburutan banatuta, askotariko ekitaldiak antolatu ziren. Geoparkeko hiru herrietako adin guztietako ehunka herritarrek parte hartu dute egitarauan, baita kanpotik etorritako bisitari ugari ere.

EGITARAUA:

- Saguzarren Gaia
- Geoparkeko Biraren 2. etapa, mendi irteera
- 'El enigma del euskera' bisita gidatua herritar etorkinekin
- Geotalks: Miguel Delibes
- 'Flyscha haurrekin' tailerra
- Biotop: Zumaiako Talaimendiko flora eta fauna
- II. Mikroipuin Lehiaketa
- 'Sakoneta' liburu-askatze ekimena
- Ate irekiak Nautilus Ikusgune Geologikoan eta Algorri Zumaiako Natur Baliabideen Interpretazio Zentroan



05

Geogarapen: Komunikazioa, Marketina eta Geoparkearen kudeaketa



GKG1

PROIEKTUAREN GOBERNANTZA, ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA OROKORRA

1.1. Lantaldea

2025ean lantaldea mantendu da, bai lanpostuak baita lankidetzak ere. Arlo hauetako profesionalek osatzen dute lantaldea: Kudeaketa, Geologia, Ingurumen Hezkuntza, Turismoa eta Komunikazioa.



GKG3

EGN, GGN, UNESCO eta NAZIOARTEKO SAREEKIN HARREMANAK

Euskal Kostaldeko Geoparkea, UNESCOren beste geoparkeak bezala, Europako eta Munduko Sareetako kide da. Sare oso aktiboak dira biak, lantaldetan eta osoko bilkuran batzen dira (aurrez aurre zein modu telematikoa) eta partaidetza derrigorrezkoa da. 2025. urtean IUGS, GGN eta UGGp erakundeetako goreneko zuzendaritza organoetan parte hartu dugu, geoparkearen nazioarteko oihartzuna indartuz eta finkatuz eta, bide batez, hainbat geoparkeekin elkarlana bultzatuz.

- Kütralkura geoparkean (Txile) egin da **UNESCOren Munduko Geoparkeen Nazioarteko XI. Batzarra** topaketa. *Geoconservation in UNESCO Global Geoparks workshop* antolatu genuen.
- Parisen (Frantzia) ospatu den **18th European Geoparks Conference** biltzarrean izan gara eta Espainiak Unescon duen enbaxadore delegatu Miquel Icetarekin batzartu gara.
- UNESCOko ebaluatzaile senior bezala **Islandiako Katla eta Greziako Kefalonia-Ithaka geoparkeen ebaluazioak** egin dituzte Geoparkeko ordezkariak.
- Estatu mailan geoparkeok Estatuko Geoparkeen Sarean antolatzen gara. Aurten, aurrez aurreko topaketa egin dugu: **X Jornadas abiertas de la Red Española de Geoparques Mundiales**. Bertan aurkeztu da Espainiako Unesco Geoparkeen Elkarte berria.

- **INTERNATIONAL UNION OF GEOLOGICAL SCIENCES (IUGS)**

Geoparkeko Zuzendari zientifiko Asier Hilariok proiektua ordezkatu du tokiko, estatuko zein nazioarteko foro ugarian.

Lagin bat:

-**IUGS International Commission on Geoheritage**-ko lehendakari eta koordinatzaile orokorra da Hilario.

-**IUGS komite exekutiboaren bileran** parte hartu genuen, iaz Parisen.

- **UNESCO Global Geoparks (GGN – UGGp)**

-EGN Advisory Committee-ren zuzendaritza taldeko kide da Hilario.

-Global Geoparks Network (GGN) Executive Board-eko kidea da.

-Geoparkeek ondare geologikoa nola landu online ikastaroa egin eta azterketa egiteko adituak koordinatu ditugu.

-UNESCOK eta GGNeK antolatuta Lesvosen egin den *Intensive course on UNESCO Global Geoparks* ikastaroan parte hartu du, irakasle bezala.

-*Geodiversity International Day* ospatzeko Munduko Geoparkeen Sarean “Geoconservation” workshopa eta kanpaina antolatu dugu.

-*Intensive Course in UNESCO Global Geoparks in China* jardunaldian parte hartu genuen online hitzaldi bat emanez.

-Keniako zerbitzu geologikotik eta Baringo geoparke proiektutik bisita jaso dugu geoparkean gure ereduaz eta jardunaz ikasteko.

- **Estatuko Geoparkeen Sarea**

-Cabo Ortegal eta Ciudad Realeko Volcanes de Calatrava geoparkeei aholkularitza eman zaie.

-Geoparkeen Sareko ordezkari zuzenduta online ikastaroan parte hartu dugu.

-Oporto hiriko UNESCO taldeari egun osoko txangoa eskaini zaie Geoparkean.

GKG4

KOMUNIKAZIO ESTRATEGIKOA

Lehentasunezko arloa izanik, aurreko urtetan erabakitako ildo estrategikoa ardatz hartu eta hainbat ekintza gauzatu dugu.

Batetik, irudi-marka berria aplikatzeari eta sendotzeari ekin diogu, barne zein kanpo komunikazio guztietan erabilia,

hala nola, publizitatean, eskuorri eta mapetan, merchandising produktuetan, webgunean eta sare sozialetan. Bestetik, tokiko zein kanpoko hedabideekin harremanak sendotu ditugu, bai komunikazio alorrean baita marketing eta publizitate arloan ere.



5.4.1. Online komunikazioa

- **Webgunea:** Geure webgunean 20 albiste argitaratu, bestelako edukiak eguneratu eta bloga maiztasunez elikatu dugu.
- **Newsletter:** 9 komunikazio bidali zaizkie harpidedunei.
- **Sare sozialak:** gure presentzia indartzen jarraitzen dugu, jarraitzaile kopurua modu organikoan gehituz.

X + %2,21

Instagram + %11,51

YouTube + %16

Facebook: Orrialdeen jarraitzaileak + %1,13



5.4.2. Offline komunikazioa

- **Prentsa-oharrak:** 14 bidali dira.
- **Irratia:** 12 elkarrizketa eskaini dira, besteak beste, OndaVasca, CadenaSer, RadioEuskadi, Euskadi Irratia eta Arrate irratietan. Gainera, Geoparkeari buruz irratsaio monografiko bat egin dute RNEko 'Iberia verde' saioan.
- **Telebista:** ETBko 'Euskal Herria Hegan' eta 'Biba Zuek' saioetan agerraldiak.
- **EGN /GGN sareko komunikazioak:** bi erakundeen newsletter eta magazineetan aktiboki parte hartzen dihardugu, maiztasun jakineko kolaborazioak idatziz.

GKG5

MARKETINA

5.5.1. Materiala

Merchandising elementu berria: Geoparkeko Birako nezeserra. Paperezko poltsa berriak ere sortu dira. logo berriarekin.

5.5.2. Publizitatea

Iragarkiak: Berriako 'Oporrak EHn' gehigarrian, Guide Pays Basque webgunean, Naiz irratian, Sua Edizioak-en aldizkari monografikoan, SER Catalunyan eta Revista Donostian.

5.5.3. Akordioak

GUKA tokiko hedabideen kooperatibarekin; BERRIALagun akordioa berritu; Animadeba zinema jaialdiarekin akordioa berretsi.

5.5.4. Babesletza

- Kirola: FlyschBeltza igeriketa zeharkaldia; VIII. Lasturko Mendi Martxa, Geoparkeko Karstaren Bira; XVI. Flysch Trail 2024; VIII. Itziar Trail.
- Kultura: Animadeba; Andoaingo Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatutako tonbola.

5.5.5. Fam trip

- **Nexonatura** sare sozialetako kontuko kideak izan ditugu Geoparkean hiru egunez. Natura arloko influentzer garrantzitsu hauek 95,8 mila jarraitzaile dituzte eta biologia eta naturaren zabalkundea egiten dute Estatuko txoko askotan. Bideo eta argazki desberdinen bidez Geoparkeko Bira eta Geoparkeko naturguneetako gai interesgarriak zabaldu zituzten instagram bidez eta oihartzun handia izan zuen.
- Eusko Jaurlaritzaren @visiteuskadi kontuan (102 mila jarraitzaile) **Euskadi Basque Country Grand Tour by Gastronomika** kanpainan parte hartu dugu DT Comunicación Digital enpresaren bitartekaritzarekin. 214 mila jarraitzaile dituen @dostruchasconpasaporte influentzer bikoteari informazioa emanez, harrera eginez eta grabazioak egiteko beharrezkoa zen itsasontzian *Flyscha begirada batean* bisita gidatu pribatua eskainita kolaboratu dugu.
- **RTVEko 'La Iberia Verde'** saioak Geoparkeari buruzko monografikoa grabatzeko fam trip bat antolatu dugu Angel Varela Pena kazetariarekin. Irratsaioa Radio Exterior katean emititu zen eta nahieran entzuteko moduan dago. Sare sozialetan ere bere isla izan zuen egonaldi honek, Instagramen zazpi reel/story sortu zituelarik.

**JARDUERA HAUEK GUZTIAK HONAKO
ERAKUNDEEN EKARPENEI ESKER EGIN DIRA:**

DEBAKO UDALA

MUTRIKUKO UDALA

ZUMAIAKO UDALA

**EUSKO JAURLARITZAKO
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMO
SAILA; INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO
ETA JASANGARRITASUN SAILA**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO
KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROLA;
MUGIKORTASUNA, TURISMOA ETA LURRALDE
ANTOLAKETA; LURRALDE OREKA BERDEA**



GEOPARKEA.EUS

**GEO
PAR
KEA**



DEBA

MUTRIKU

ZUMAIA